



## **HIRI HONDAKIN SOLIDOAK BILDU ETA ERAMATEKO ZERBITZUA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA**

### **ORDENANZA REGULADORA DEL SERVICIO PÚBLICO DE RECOGIDA DE BASURAS**

#### **I. Xedapen orokorrak**

##### **1. artikulua**

Arabako Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauan ezarritakoari jarraituz, zaborrak biltzeko zerbitzua emateagatik ordaindu beharreko tasa ezarri eta eskatuko du Udalak, ordenantza honen arabera.

Ezarri beharreko tarifak jasotzen dituen eranskina ere ordenantzaren zati da.

##### **2. artikulua**

Ordenantza udalerrri osoan ezarriko da, Oletako Batzar Administratiboan izan ezik.

#### **II. Zergagaia**

##### **3. artikulua**

1. Tasa honen zergagaia da zarama biltzeko zerbitzua ematea, garraiatzea eta baimendutako zabortegietan tratamendua egitea. Tasa hori ordaindu beharko da udalak zuzenean kudeatuta zein partzuergoaren edo kontratistaren bidez ematen bada zerbitzua.

2. Zerbitzua gauzatutzat joko da, eraikina dagoen eremuan zaborrak jasotzeko udal zerbitzua ezarrita eta jardunean ari denean.

3. Etxeetako zarama biltzeko zerbitzua ematea orokorra eta nahitaezkoa da. Horregatik, udal antolakuntzak barne hartzen duen eremuan dauden eraikinetako titularrek eta erabiltzaileek zerbitzua erabiltzen dutela jakintzat emango da.

Honako hondakinak bildu, garraiatu, gorde eta deuseztatzea borondatezkoa da: lantegi eta tallerretako prozesu edo lantze industrialek sortutako hondakin solidoak; obra eta eraispenetatik ateratako eskonbru eta lurra; ospitale, klinika eta osasun zentroetako detrituak.

#### **III. Subjektu pasiboak eta salbuespenak**

##### **4. artikulua**

1. Tasaren subjektu pasiboak dira zaborrak biltzeko zerbitzua eskatzen dutenak, edo zerbitzuaren

#### **I. Disposiciones generales**

##### **Artículo 1**

Este ayuntamiento, de acuerdo con la norma foral reguladora de las haciendas locales del Territorio Histórico de Álava, establece y exige la tasa por la prestación del servicio de recogida de basuras con arreglo a la presente ordenanza, de la que es parte integrante el anexo en el que se contienen las tarifas aplicables y su período de recaudación.

##### **Artículo 2**

La ordenanza se aplica en todo el término municipal.

#### **II. Hecho imponible**

##### **Artículo 3**

1. Constituye el hecho imponible de esta tasa la prestación del servicio de recogida de basuras, su transporte y tratamiento en los vertederos autorizados. Ello tanto se realice por gestión municipal directa como a través de consorcio o contratista.

2. Se entiende realizada la prestación cuando esté establecido y en funcionamiento el servicio municipal de recogida de basuras en la zona donde se ubique el inmueble.

3. La prestación del servicio de recogida de basuras domiciliaria es de carácter general y obligatorio, por lo que se entenderá utilizado por los titulares y usuarios de inmuebles existentes en la zona que cubra la organización municipal.

Es de carácter voluntaria la recogida, transporte, vertido y eliminación de residuos sólidos resultantes de procesos o elaboraciones industriales de fábricas y talleres, escombros y tierras procedentes de obras y derribos y de detritus de hospitales, clínicas y centros sanitarios.

#### **III. Sujetos pasivos y exenciones**

##### **Artículo 4**

1. Son sujetos pasivos de la tasa los que soliciten o resulten beneficiados o afectados por el servicio



ondorioz onurak edo kalteak jasotzen dituztenak.

2. Etxebizitza edo lokaletako okupatzaileentzat onura edo kalte diren zerbitzu edo jarduerak direla eta ezarritako tasetan, zergapekoaren ordezkio izaera izango dute etxebizitza edo lokal horien jabeek. Hala badagokie, beraiengan izango dute eragina, bakoitzarekin lotutako onuradunen kuotek.

3. Zerbitzu orokor eta nahitaezkoak emateagatik tasa ordaindu behar duten subjektu pasiboek alta, baja eta aldaketa aitorpenak aurkeztu beharko dizkiote udalari, hau da, tasa zuzen ezartzeko behar diren datuak eman beharko dizkiote, tasaren menpe dagoen etxebizitza, lokala edo establezimendua erosten den egunetik hasita hilabeteko epean, edo horri eragiten dion aldaketa gertatzen den egunetik hasita; horretarako udalak onartutako eredia erabili beharko da.

4. Bizilekuaren titulartasunean aldaketak egonez gero, jabeak nahitaez jakinarazi beharko dizkio Aramaio Udalari eroslearen identifikazio-datuak. Edozein kasutan ere, titularrak eroslearen ordezkio izaera izango du.

#### **5 artikulua**

Aramaio Udalaren eta bere baitako administrazio-batzarren higiezinak ez dute tasa hau ordaindu beharrik izango, haien helburuak betetzeko erabiltzen badira. Udalaren eta administrazio-batzarren jabetzako etxebizitza edo negozio-lokalen errentariak ez dira horretan sartzen.

#### IV. Kuota

#### **6. artikulua**

1. Zergaren kuota urterokoa da, eta eranskinean jasota dagoen tarifen koadroan oinarrituta zehazten da.

#### V. Sortzapena

#### **7. artikulua**

1. Tasa urtarrilaren lehenengo egunean sortzen da, eta zergaldiak urte natural osoa hartuko du, udalak tasa hau hiru hilean behin edo sei hilean behin kobratzeko aukera ere izango duelarik.

2. Zerbitzua erabiltzen hasi edo erabiltzeari uzten zaionean, zergaldia egokitu egingo da, kuota hainbanatuz. Hainbanaketa hurrengo atalean zehazten denaren arabera egingo da.

3. Tasaren kuotaren zenbatekoa hainbanatu egingo da hiru hileko naturalen arabera, zerbitzua erabiltzen

de recogida de basuras.

2. Tendrán la condición de sustitutos del contribuyente en las tasas establecidas por razón de servicios o actividades que beneficien o afecten a los ocupantes de viviendas o locales, los propietarios de los mismos, quienes podrán repercutir en su caso, las cuotas sobre los respectivos beneficiarios.

3. Los sujetos pasivos deberán presentar en este ayuntamiento las oportunas declaraciones de alta, baja y modificaciones, suministrando los datos necesarios para la correcta aplicación de esta tasa en el plazo de un mes a contar desde la fecha de adquisición de la vivienda, local o establecimiento sujeto a esta tasa, o desde la fecha en que se produzca cualquier variación que afecte a la misma, utilizando el modelo aprobado por el ayuntamiento.

4. En los supuestos de cambio de titularidad de la vivienda el propietario estará obligado a comunicar al Ayuntamiento de Aramaio los datos identificativos del comprador, teniendo en todo caso aquel el carácter de sustituto de éste.

#### **Artículo 5**

Están exentos de esta tasa los inmuebles propiedad del Ayuntamiento de Aramaio y los de sus juntas administrativas, destinados al cumplimiento de sus fines. No se incluyen los arrendatarios de viviendas o locales de negocio de propiedad del ayuntamiento y de las juntas administrativas.

#### IV. Cuota

#### **Artículo 6**

1. La cuota tributaria es anual y se determina en base al cuadro de tarifas reflejado en el anexo.

#### V. Devengo

#### **Artículo 7**

1. La tasa se devenga el día primero de enero y el periodo impositivo comprenderá el año natural, sin perjuicio de que el ayuntamiento pueda cobrar esta tasa trimestral o semestralmente.

2. En los supuestos de inicio o cese en el uso del servicio, el periodo impositivo se ajustará con el consiguiente prorrateo de la cuota conforme el dispuesto en el apartado siguiente.

3. El importe de la cuota de la tasa se prorrateará por trimestres naturales en los casos de inicio o



edo jasotzen hasi edo amaitzerakoan.

Alta emateak eragina izango du, zerbitzua eskatu edo ematen den hiruhilekoaren lehenengo egunetik. Baja emateak eragina izango du soilik, eraikinaren desagertze edo aurri kasuan.

4. Titular aldaketa kasuan, eskaeraren hurrengo hiruhilekoaren lehenengo egunetik izango du eragina.

#### VI. Kudeaketa arauak

Zerbitzua ezartzen den unean bertan sortzen da zerga ordaintzeko beharra, zaborraren bilketa denek eta nahitaez egin beharreko zerbitzua baita, eta ulertzen da zerbitzu hori erabiltzen dutenak etxebizitza, lokal profesional eta gainontzeko jardueren titularrak direla.

Zaborra biltzeko zerbitzuaren erabiltzaileak beste sailkapen bat eskatu ahal izango du, baina inolaz ere zerbitzuan baja emateko.

Behin jasotzen hasitakoan, zabor biltzeko zerbitzuari ezin izango zaio uko egin, ezta zaborra biltzen duen zerbitzuarengatik ordaindu beharreko tasa ordaintzeari utzi ere. Dena den, interesdunak berariaz eskatzen badu, dende ordaindu beharreko tasa aldatu ahal izango da. Horretarako, dendak jarduerari utzi eta udal teknikariek uzte hori onartu egin behar izan dute. Horrelakoetan, tasa orokorra kobratuko da.

Ez dute zaborra biltzen duen zerbitzuarengatik ordaindu beharko aurri egoeran daudenek eta eraiste lanek.

#### VII. Arau-haustea eta zehapenak

##### 8. artikulua

Zerga arau-hausteen kalifikazioari buruzko guztian, bai eta kasu bakoitzean arau-hauste horiei dagozkien zigoren kalifikazioan ere, Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorrak 77. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoari jarraituko zaio.

#### XEDAPEN DEROGATZAILEA

Ordenantza hau indarrean jartzen den egunean, indar eta baliorik gabe geratuko dira, ordenantza honen aurka doazen bere pareko edo maila txikiagoko xedapen, erregelamendu eta ordenantza guztiak.

#### AMAIERAKO XEDAPENA

Ordenantza hau indarrean jarriko da, 2018ko urtarrilaren 1ean.

cese en la utilización o prestación del servicio.

Las altas producirán efecto desde el primer día del trimestre en que se soliciten o presten. Las bajas surtirán efecto sólo en los casos de derribo o ruina.

4. En los casos de cambio de titular, tendrá efectos a partir del primer día del trimestre posterior a la solicitud.

#### VI. Normas de gestion

La obligación de contribuir nace con la implantación del servicio, por tener la condición de obligatoria y general, entendiéndose utilizado por los titulares de viviendas, locales profesionales y actividades comerciales.

Se solicitará el cambio de clasificación de la prestación del servicio de recogida de basura por parte del solicitante, no pudiéndose nunca dar de baja de la prestación de dicho servicio.

Una vez iniciado, nunca se podrá dar de baja o eximir del pago de la tasa por prestación del servicio de recogida de basura. No obstante, mediante solicitud expresa del interesado, se podrá modificar la tasa relativa a los comercios, cuando la actividad hubiera cesado y así lo estimasen los técnicos municipales. En tal caso, se girará la tasa general.

Estarán exentos del pago del impuesto por prestación del servicio de recogida de basura los supuestos de derribo y ruina.

#### VII. Infracciones y sanciones

##### Artículo 8

En todo lo relativo a la calificación de infracciones tributarias, así como de las sanciones que a las mismas correspondan en cada caso, se estará a lo dispuesto en los artículos 77 y siguientes de la norma foral general tributaria de Álava.

#### DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Se derogan dejándolas sin valor ni efecto alguno, a partir de la entrada en vigor de la presente ordenanza, cuantas disposiciones, reglamentos u ordenanzas de igual o inferior rango estén establecidas y se opongan a la misma.

#### DISPOSICIÓN FINAL

La presente ordenanza entrará en vigor el 1 de enero de 2018.



### ERANSKINA/ANEXO

Zaborrak biltzeko zerbitzu publikoa emateagatik jaso beharreko tasak / *Tasas por la prestación del servicio público de recogida de basuras:*

<u>Etxebizitzak / Viviendas</u>	<u>73,67 €</u>
<u>Lokal profesionalak / Locales profesionales</u>	<u>110,51 €</u>
<u>Merkataritza, landetxe, tailer mekanikoak eta nekazal ustiategiak / Comercios, casas rurales, talleres mecánicos y explotaciones agrarias</u>	<u>147,34 €</u>
<u>Elkarte gastronomiko, taberna, jatetxe eta hotelak / Sociedades gastronómicas, bares, restaurantes y hoteles</u>	<u>184,18 €</u>
<u>Industria eta hezkuntza zentroa / Industria y centro educativo</u>	<u>257,81 €</u>

ALDAKETEN HISTORIA		HISTORIAL DE MODIFICACIONES	
OHARRA: Testu hau hasierako testuaren eta ondoren aipatzen diren aldaketen bertsio bateratua da. Bere helburua soilik informatzailea eta kontsultakoa da. Legezko baliodun testu bakarrak publikazio ofizialetan jasotakoak dira.		NOTA: El presente texto es una versión integrada de primer texto y de las modificaciones que se indican. Su publicación tiene finalidad exclusivamente informativa y de consulta. Los únicos textos considerados legalmente válidos son los que aparecen en las publicaciones oficiales	
Udal Plenoan onartutako eguna / Fecha de aprobación en Pleno Municipal	ALHAOn argitaratutako eguna / Fecha publicación en BOTHA	Indarrean sartu den eguna / Fecha de entrada en vigor.	Aldatutako artikulua / artículos modificados.
2017/10/26	2017/12/27	2018/01/01	Lehen onarpena. / Primera aprobación.
2019/10/31	2019/12/30	2020/01/01	Kontzeptu guztiei %4ko igoera aplikatzea / Aplicar a todos los conceptos un incremento del 4%.
2021/09/30	2021/12/22	2022/01/01	Kontzeptu guztiei %7ko igoera aplikatzea / Aplicar a todos los conceptos un incremento del 7%.
2022/09/29	2022/12/16	2023/01/01	Eranskinen kontzeptu guztiei %8ko igoera aplikatzea / Aplicar a todos los conceptos el Anexo un incremento del 8%.